

EZKIO-ITSASO / Ezkio-Itsasoko Udal Liburutegia Eusko Jaurlaritzako sare batean sartu da Orain, sarean dauden beste liburutegiekin, kontsultak egin edo materiala eskuratzeko, harremana izango dute

MIRYAM GALILEA/ EZKIO-ITSASO. DV.
Ezkio-Itsasoko Udal Liburutegia sare baten barruan sartu da eta hemendik aurrera, sarean dauden liburutegi guztiekin harremana izango du, bai kontsultak egiteko, baita materialak eskuratzeko ere.

Horregatik, kide zareten guztiek liburutegitik pasatu behar duzue zuen irakurle-txartela berritzera. Horretarako bi aukera egongo dira: lehenengo aukera, sarean dagoen edozein liburutegitan erabiltzeko irakurle-txartela izango da; bigarren aukera berriz, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskain-tzen duten 'Izenpe' txartela. Azken hau, sareko liburutegietan erabil-tzeaz gain, Herri Administrazioekiko beste hainbat harremanetarako ere erabili ahal izango da.



Udalekuetako klase batzuk liburutegian eman ziren. [M. GALILEA]

'Izenpe' txartela lortu nahi dutenek, irailaren 26an, astelehena, arratsaldeko 5:30etatik 7:30etara; edo irailaren 28an, asteazkena, eta 30an, ostirala, arratsaldeko 6etatik 8etara Liburutegira joan beharko dira. Egun hauetan, Izenpe erakundetik pertsona bat etorriko da liburutegira, txartela hauek egin eta herritarrek dituzten zalantza eta galdera guztiak erantzuteko.

Mailegu arauak

Ezkio-Itsasoko Udal Liburutegia, liburutegi-sare honetan sartu denez, bertako mailegu arauak pixka bat aldatuko dira.

Hemendik aurrera aldi berean guztira 16 dokumentu hartu ahal izango dira. Hamasei hauetatik 6 dokumentu Ezkio-Itsasoko liburutegikoak izango dira, hiru liburu eta hiru material berezi (bideoak, diskoak, CD-ROM-ak, etab.) hartzeko aukera egongo delarik. Beste hamar dokumentuak sareko gainerako udal liburutegietatik hartzeko aukera egongo da: bost liburu eta bost material berezi hartzeko aukerarekin.

Mailegu-hartzailea, 15 egun barru itzuli beharko ditu liburuak, eta 7 egun barru material bereziak. Epea luzatu nahi baldin badu, mailegua berrituz, kontuan izan behar da liburuak behin soilik berritu daitezkeela, material bereziak bezalaxe, baina hauek 7 eguneko epearekin.

Beste alde batetik, kontuan izan behar da ere, materialak erreserbatuta badaude, ezingo direla berritu.

Dokumentuak itzultzeko epeak betetzen ez dituen erabiltzaileak, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik, egun bateko zigorra jasoko duela; zigorra, sare osorako izango da.